



ESKOLAK BIRIBILDUZ

Hondakinen Prebentziorako Europako Astea
2023ko Azaroaren 18tik 26ra.

Mazedonia Diseinu Elkartearen eskutik
mazedonia.elkartea@gmail.com

mazedonia
www.mazedoniadesign.com



AURKIBIDEA



Antolatzaileak	4
Proiektuaren helburua	6
Esperientziaren urratsak	7
Bilketa selektiboa	8
Eraldaketa: plastikoen birrinketa	10
Eraldaketa: injekzio prozesua	11
Lorategiaren muntaia	15
Emaitza	16
Ikasleen parte hartzea Axular Lizeoan	18

ANTOLATZAILEAK



MAZEDONIA DISEINU ELKARTEA

Mazedonia Donostian oinarritutako diseinu estudioa da: kontzeptu diseinua, fabrikaziorako diseinua, prototipoen garapena, 3D diseinu eta bistaratze zerbitzuak eskeintzen ditu. Gainera, ekonomia zirkularreko sistemen diseinua, enpresa hondakinen kudeaketarako ikerketa eta aholkularitza lantzen ditu. Diseinu jasangarria ikasteko lantegi teoriko-praktikoak antolatzen ditu, Precious Plastic unibertsoan oinarrituak. Bestetik, Donostiako Precious Plastic komunitatearen enbaxadore gisa jarduten du Elkarteak Medialab Tabakalera gunean, hiritarrekin eta disziplina anitzetako sortzaileekin elkarlanean. Honela materialekin esperimentatzeko prozesuak eta plastikoa birziklatzeko teknikak zabaltzen ditu hiritarren artean, Donostian diseinuaren eta sorkuntzaren eszena fantasiaz indartuz.

Gorka Sánchez Urkia eta Ainhoa Garmendia diseinu ingeniari donostiarrek osatzen dute Mazedonia.

ANTOLATZAILEAK

mazedonia

index info



we are plastic fishermen



argitu lamp
shop now



plastic soup stool



xakea & xiaqi



donut lamp



plastic cakes



sokasalto
shop now



carabiner
shop now



Bangkok design week - plastisphere



boga boga swing



surf fin



manuela va de fiesta x kaleidoskopia

PROIEKTUAREN HELBURUA




ESKOLAK BIRIBILDUZ:

Hondakinen prebentziorako Europako Astea
2023ko Azaroaren 18tik 26ra

Mazedonia Diseinu Elkartek Eskolak Biribilduz izeneko esperientzia garatu du, ikastetxeek sortzen dituzten hondakinei irtenbidea emateko. Elkartek etxetiar jatorriko erabilera bakarreko plastikoen bilketa selektiboak antolatu ditu, bildutakoarekin produktuak diseinatu eta produzitzeko, hauek eskolarentzat baliagarriak diren material gisa itxuraldarik bueltatzeko. **Hondakinen prebentziorako Europako Astearen markoan birziklatutako loreontziak daramatzen lorategi bertikala sortu da eskolarentzat.**


Sendotasuna, iraunkortasuna, edota ekonomia zirkularreko irizpideak kontuan izanik garatu dira loreontziak. Baita ere erabilera bakarreko plastikozko edukiontziei lotutako kutsadura eta gehiegizko erabilpenaren objektu adierazleak dira. Izan ere, euren kolore, textura eta akaberak birziklatutako eta berrerabilitako materialekin egindako objektu alaien aurrean gaudela oroitaraziko die erabiltzaileei, birziklatutako materialen pontentziala berraurkituz.

ESPERIENTZIAREN URRATSAK




1. PAUSUA: PLASTIKOEN BILKETA SELEKTIBOA

Eskolako ikasle eta familiek
Mazedoniak kudeatutako
hondakinen bilketa selektiboan
parte hartu dute.



2. PAUSUA: BILDUTAKO PLASTIKOEN ERALDAKETA

Mazedonia Diseinu Elkarteak
amaierako produktuak
diseinatu eta ekoiztu ditu
eskolarentzat erabilgarriak
diren produktuak garatzeko.



3. PAUSUA: PRODUKTUEN MUNTAIA ETA ZAINTZA

Amaierako produktuak
eskolan muntatu dira,
lorategi bertikal modura.
Ikasleen artean landareak
zainduko dira.

BILKETA SELEKTIBOA

1 - DEIALDIA ZABALDU:

Ikasle eta gurasoei eskutitz bidez argibideak adierazi zaizkie.

2 - BILKETA SELEKTIBOAREN PUNTUA DEFINITU:

Eskolan tapoien bilketa puntua prestatu da. Mazedoniak edukiontzi eta material grafikoak eman dizkio eskolari, adostutako tokian jartzeko. Bilketa selektiboa 2023ko Maiatzetik Ekainera egin da.

3 - JASO DEN MATERIALA:

Plastikozko tapoia jaso dira soilik, hauek garbi egotea garrantzi handikoa izan da.



TAPOIEN BILKETA
GARBIAK EKARRI!

AXULAR LIZEOAN
MAIATZA-EKAINA

ZURE
PLASTIKOZKO
TAPOIAK
BEHAR
DITUGU!

www.mazedoniadesign.com

mazedonia

BILKETA SELEKTIBOA

Bildutako hondakin kopurua izugarria izan da: 100kg baino gehiago! Ondoren, Mazedonia Diseinu Elkarteko kideek **tapoiak eskuz sailkatu dituzte**. Sailkapena honako irizpideak jarraituz egin da: soilik tapoi garbiak gorde dira, PP (5) eta HDPE (2) plastiko motak.

BILKETAREN EMAITZAK	
Sailkatutako PP (5) tapoi garbiak	13,0 kg
Sailkatutako HDPE (2) tapoi garbiak	16,2 kg
Sailkapenaren lerma (kontainer horira)	75,6 kg
Guztira eskolan bildutakoa	104,8 kg



ERALDAKETA: PLASTIKOEN BIRRINKETA


Jarraian, bildutako tapoiak koloreka sailkatu eta birrindu dira, banan banan, birringailua erabiliz.



ERALDAKETA: INJEKZIO PROZESUA

Mazedonia Diseinu Elkarteko kideek produkzio prozesua dokumentatzeko ahalegin handia egin dute. Emaitzak webgunean ikusgai daude, estekan klik egin bidez bideo bidez prozesua ikusteko: <https://mazedoniadesign.com/eskolak-biribilduz>

Hondakin hauei bitzta berria eman zaie. Bildutako plastikozko tapoiak 50 loreontzi eta 50 mosketoietan moldatu dira injekzio bidez, Mazedoniak dituen makina eta moldeak erabilia. Prozesua artisauen erara egin da, izan ere pieza bakoitzak bere kolore bereizlea du.



ERALDAKETA: INJEKZIO PROZESUA

Emaitzak webgunean ikusgai daude, estekan klik egin bideo bidez prozesua ikusteko:
<https://mazedoniadesign.com/eskolak-biribilduz>



ERALDAKETA: INJEKZIO PROZESUA

Emaitzak webgunean ikusgai daude, estekan klik egin bideo bidez prozesua ikusteko:
<https://mazedoniadesign.com/eskolak-biribilduz>



ERALDAKETA: INJEKZIO PROZESUA

Emitzak webgunean ikusgai daude, estekan klik egin bideo bidez prozesua ikusteko:

<https://mazedoniadesign.com/eskolak-biribilduz>




mazedonia
www.mazedoniadesign.com

Prozesuaren bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=0-wHbNHlyPY>

LORATEGIAREN MUNTAIA

Loreontziak sokak eta mosketoiak erabiliz zintzilikatu dira egurrezko listoi batetik. Kotoizko soken korapiloak eskuz lotu dira. Egurrezko pieza paretan instalatu da Axularreko pasiloetan lorategi bertikal modura.



EMAITZA - LORATEGI BERTIKALA



EMAITZA - LORATEGI BERTIKALA



IKASLEEN PARTE HARTZEA AXULAR LIZEOAN

Aurkezpen egunean, ikasleei proiektua azaldu diegu bideo baten bidez eta plastiko birziklapenaren prozesua irakatsi diegu.

Amaieran, denok elkarrekin lorategia landareekin bete dugu eta ikasleak landareen zaintzaz arduratuko dira.

Esperientzian parte hartu duten familia kopurua	
Axular L.H. Bilketa Selektiboa	300 familia
Birziklatze prozesuaren azalpena	50 familia

Birziklatu den plastiko kantitatea	
Galats gisa	28,7 kg
Amaierako produktu gisa	5,5 kg



ESKOLAK BIRIBILDUZ

Birziklatutako materialekin garatutako lorategi bertikala
Mazedonia Diseinu Elkartearen eskutik



**Hobeto ikasten
dugunean, hobeto
jokatzen dugu.**

**Hondakinak,
material preziatu.**